

## **“BAI EUSKARARI” KANPAINA ANTOLATU ZUTENEI ESKERRAK EMANEZ**

Bittor Artola, Iñaki Azpitarte, Pedro M.<sup>a</sup> Basañez, Jose M.<sup>a</sup> Beaskoetxea, Jon Castañares, Juan M.<sup>a</sup> Covian, Alberto Elorriaga, Enrique Ibabe, Iñaki Juaristi eta J. J. Zearreta.

Jaunak:

Guztiok dakigu nolako eragina, nolako zirrara eta oihartzuna izan duen “Bai Euskarari” kanpainak.

Kanpaina horren eratzailleak, bada, une hontan, hementxe ditugu geure artean, geurekin. Gizon prestu hoiek gabe ez genuen ezer egin ahal izango. Jaun hoiien buru-bihotzetan erne zen kanpaina hori egiteko lehen asmoa. Beroiek antolatu zuten, beroiek etengabe egon dira gainean, eta beroiei esker bere helburuak lortu ditu kanpaina horrek. Beroien laguntza, oso-osoko ardura eta emaitza gabe Euskaltzaindiak ezer gutxi egin zezakeen. Arlo hoietan trebe direnen eskua behar-beharrezkoa genuen, eta jaun hoiek eskua ezezik, baita bihotza eta astia eta dena eman digute.

Kanpaina bukatu da, baina Euskaltzaindiak ezin ahantz ditzake jaun hauek.

Eskerrak ematen dizkiegula esateak badu halako hitz hutsal eta hotz baten itxura. Ordaindu, berriz, guk ezin ordain diezaiekegu, inondik eta inolaz ere, euskaragatik eta Euskaltzaindiagatik jaun hoiek egin duten lana.

Orduan zer egin? Mututu? Hori ere ez, noski.

Zuei, bada, jaunoi, Euskaltzaindiaren izenean hauxe esan nahi dizuet:

Zuek egin duzuen lan hau, hutsean, dohan eta urririk egin duzuen lana, ordu askotako, neke, buru-hauste askotako lan eskerga hau, ongi konpreniten eta ulertzen dugu. Bada-kigu, alegia, lan guzti honen esannahia zein den. Badakigu



zer adierazi nahi duzuen horrekin. Gure elkargoan, Euskaltzaindian, hemen gauden gizon kaxkarron gainetik dagoen zerbait ikusten duzuela irudikatua: Euskara, noski, gure herriaren ondasuna. Gure herriak, herri bezala, duen agergarri eta lokarrik baliozkoena. Eta nola Euskaltzaindia ondasun hori zaintzeko eta bizirik ateratzeko jarririk dagoen, hortik eta horregatik izan da kanpaina honen alde agertu duzuen gogo beroa. Hortik eta horregatik zuen gureganako borondatea. Badakigu zuen emaitza ez dela guregatik, ez dela guretzat. Errepresentatzen dugun izpirituzko ondasun horregatik izan dela, alegia.

Esan nahi dizuet, bada, zuen emaitza horren esannahi hau ongi jaso eta ulertu dugula. Eta zuen keinuak adierazten duenari erantzunez, Euskaltzaindiaren izenean esan nahi dizuet gure elkargoa kemen eta arnasa berriz hornitua atera dela kanpaina hunetarik. Santimamiñeko zelaian esan nuena berriro esan nahi dut: Hemendik aurrera, zuen laguntza eta atxikimenduari eskerrak, eta herriaren erantzunari eskerrak, gure elkarte hau oldar berriz eta gogotikago lotuko dela bere zeregin handiak betetzera.

Eta gure aldetik, gure eskerronaren agergarritzat, oroi-kailu xume hauek eskeini nahi izan dizkitzuegu. Har itzazue, otoi, gure borondate eta gogo onaren seinale bezala.

*Donostian, 1978 irailak 29*